



**HIGIENE- ETA OSASUN-ARLOKO SEGURTASUN-PROTOKOLOA,
MERKATARITZARAKO**

Protokolo irekia da honako hau, eta informazio, gomendio edo jarraibide berriak erantsiko zaizkio,
COVID-19aren bilakaeraren arabera.

(azken eguneraketa: 2020/05/03_1)



AURKIBIDEA:

1. XEDEA	3
2. ERANTZUKIZUNAK	3
3. BIRUSAREN AURREAN BABESTEKO NEURRI OROKORRAK	3
4. BEZEROEK HARTU BEHAR DITUZTEN NEURRIAK	4
4.1. EROSKETAK EGITERA JOAN AURRETIK	4
4.2. EROSKETAK EGIN BITARTEAN	4
5. URRUNTZE SOZIALEKO NEURRIAK	5
5.1. SEGURTASUN-DISTANTZIA	5
5.2. EDUKIERA	5
5.3. ELEMENTU FISIKOAK	6
5.4. LINEAKO EROSKETAK	6
5.5. SALGAIK KOB RATU ETA EMATEA	6
6. HIGIENE- ETA OSASUN-ARLOKO NEURRIAK	7
6.1. NORBERAREN HIGIENEA	7
6.2. LANGILEEN JARRERA	8
6.3. GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-PROZEDURA	10
7. ANTOLAKETA-NEURRIAK	12
7.1. ZUZENDARITZA/GERENTZIA	12
7.2. ANTOLAKETA	13
7.3. PRESTAKUNTZA	14
8. GAIXOTASUNAREN, HARREMAN ESTUEN ETA LANGILEEN ZAURGARRITASUNAREN KUDEAKETA	15
9. HARREMANETARAKO	16
10. ERREGISTROA	16
11. ZERIKUSIA DAUKAN DOKUMENTAZIOA	16
12. NEURRI ESPEZIFIKOEN ERANSKINA:	19
12.1. NEURRI ESPEZIFIKOAK, EREMUKA	19
12.2. SALTOKI-GUNEETAN DAUDEN ESTABLEZIMENDUETARAKO GOMENDIO ESPEZIFIKOAK	21
12.3. MERKATARITZA-SEKTORE EZBERDINETARAKO GOMENDIO ESPEZIFIKOAK	22
12.4. SALMENTA EZ-SEDENTARIOKO MERKATUEN JARDUERARAKO SEGURTASUN-NEURRI ETA - BALDINTZAK	25



1. XEDEA

Merkataritzaren sektoreko enpresetan ezarri behar diren jarduera onak ezagutaraztea da protokolo honen xedea, langileak nahiz kontsumitzaileak **COVID-19 birusarekin kutsatzea eta gaixotzea prebenitzeari begira**.

Protokolo honek, bada, merkataritzaren sektorerako segurtasun-neurrien laburpena jasotzen du, erraz ulertzeko moduan.

Horretarako, aintzat hartu dira Osasun Ministerioak, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak eman dituzten askotariko jarraibide eta gomendioak.

2. ERANTZUKIZUNAK

Guztion erantzukizuna da pertsonen eta enpresetako kide guztien segurtasuna zaintzea, eta, horretarako, Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzko Legeak berak xedatzen dituen bideak nahiz eskudun osasun-agintariek adierazten dituzten neurriak jarraitu behar dira.

Langileak laneko arriskuen aurrean babesteko arduradunak enpresaburuak badira ere, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko arduradunak zerbitzu-emaileak diren bezalaxe, gizarteko agente guztiok jardun behar dugu **ERANTZUKIZUNEZ**, hala administrazioak eta herritarrek, nola enpresek eta enplegatuek.

Guzti-guztiok dugu erantzukizunaren zati bat, denon artean lortu behar baitugu **gure dendetan segurtasun higieniko-sanitarioa bermatzea**.

3. BIRUSAREN AURREAN BABESTEKO NEURRI OROKORRAK

Osasun Ministerioak honako babes-neurri nagusi hauek nabarmendu ditu:

- Pertsonen artean 2 metroko distantzia egotea.
- Eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzea eta, horiek eduki ezean, soluzio hidroalkoholiko batekin garbitzea:
 - o Eskuak garbitzea da mikroorganismoak (baita Covid-19a ere) transmititzea prebenitzeko neurririk erraz eta eraginkorrena, xaboiaren substantzia tentsioaktiboekin mikroorganismo horien bilgarri lipidikoa desaktibatzen baita.



- o Ez da zertan xaboi desinfektatzaileak erabili: eskuak garbitzeko ohiko xaboa, solidoa zein likidoa, nahikoa da. Igurtziaren iraupena da garrantzitsua, gutxienez 40-60 segundokoa izan behar baitu.
- o Soluzio hidroalkoholikoren bat erabiltzea da beste aukera bat, baina kontuan hartu ez dela eraginkorra izango eskuak zikin samar badaude. Horrelakoetan, eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitu behar dira.
- Norberaren gauzak aldizka garbitu eta desinfektatzea; hala nola, betaurrekoak, mugikorrak, teklatuak, arratoiak, txartelak eta abar.
- Honako hauek dira gune komunetan hartu behar diren prebentzio-neurriak: eremuak behar bezala aireztatu behar dira, askotan ukitzen diren gainazalak egunero garbitu behar dira, eta behin bakarrik erabiltzeko eskularruak jantzi behar dira.

Neurri hauek zehaztuko dituzte bezeroek nahiz saltokiek hartu behar dituzten gainerako neurriak.

4. BEZEROEK HARTU BEHAR DITUZTEN NEURRIAK

Guztion segurtasuna ahalik eta handiena izan dadin, bezeroen laguntza behar da. Hori dela-eta, bezeroentzako gomendio hauek ematen ditugu:

4.1. EROSKETAK EGITERA JOAN AURRETIK

- EZ joan erosketak egitera, arnas-sintomak edukiz gero.
- Irten baino lehen, eskuak garbitu.
- Bakarrik joan erosketak egitera.
- Erosketa planifikatu, irteeren maiztasuna gutxitzeko helburuz, eta ahalik eta denbora gutxien igaro establezimendu barruan. Erosketen zerrenda egin (arduraz kontsumitu).

4.2. EROSKETAK EGIN BITARTEAN

- Errespetatu segurtasun-distantziak, eta jende-pilaketak saihestu.
- Errespetatu saltokian ezarritako segurtasun-oharrak.
- Jantzi behin erabiltzeko eskularruak salgaiak manipulatzeko.
- Behar-beharrezko denboraz egon lokalean (beharrezko produktuen zerrendarekin joatea lagungarria da).



- a. Ez egon denbora luzez ontziratuta gabeko elikagaien eremuetan, distantziak gorde, eta ez ukitu elikagairik esku biluziekin.
- b. Ez ukitu erosiko ez duzun salgaririk (elikagaiak, arropak...).
- c. Ehungintzako dendetan, bezeroak eskuak garbitu behar ditu arropak probatu aurretik.
- d. Ez pilatu produktuak. Arduraz kontsumitu.

5. URRUNTZE SOZIALEKO NEURRIAK

Alferrikako ukipenak edo beharrezkoak ez direnak saihestek guztion segurtasuna bermatzen du. Horrenbestez, kontuan hartu behar dira honako jarraibide hauek:

5.1. SEGURTASUN-DISTANTZIA

- 2 metroko **urruntze soziala** mantendu (segurtasun-distantzia).
- Une oro adierazi segurtasun-distantzia gorde behar dela. Horretarako, pegatinak, hesiak, seinaleztapen bertikala (adibidez, informazio-kartelak) edota seinaleztapen horizontala (esaterako, lurreko segurtasun-lerroak), eremu-mugaketa eta abar erabil daitezke, toki hauetan:
 - o dendara sartzeko ilaretan
 - o establezimendu barruan, edo bezeroen eta langileen artean.

Kasu jakinetan, azaldutako neurri guztiak hartu arren pertsonen babesa ziurtatu ezin denean, arnas-babesa erabiltzea gomendatu ahalko da. Langileek, berriz, prebentzio-zerbitzuaren jarraibideak jarraituz erabiliko dute babesa.

5.2. EDUKIERA

- Errespetatu **edukiera**, establezimenduaren barrualdean nahiz kanpoaldean jende-pilaketak eratzea saihesteko:
 - o Lokalaren gehieneko edukiera ezarri, segurtasun-distantziari eutsi ahal izateko moduan, eta lokalaren sarreran kartel bat jarrita adierazi, sarrera kontrolatzeko mekanismo gisara.
 - o Edukiera kontrolatu, bezeroei txandaka sartzen utzita.



- o Edukiera betetzen denean, kanpoan itxaron beharko da, ondo antolatuta eta segurtasun-distantzia gordez.

5.3. ELEMENTU FISIKOAK

- Langileak eta bezeroak babestea ziurtatuko duten **manparak edo elementu fisikoak** erabiltzea gomendatzen dugu. Lan-eremua babesteko moduan jarriko dira, eta erraz garbitu eta desinfektatzekoak izango dira (behar besteko maiztasunez garbituko dira).
- Erabili pegatinak, hesiak, seinaleztapen bertikala (adibidez, informazio-kartelak) edota seinaleztapen horizontala (esaterako, lurreko segurtasun-lerroak), segurtasun-distantzia betetzea errazteko.
- Tapa eta pedala dituzten zaborrontziak jarri, eztula edo doministiku egin ondoren erabilitako paperezko zapiak botatzeko.

5.4. LINEAKO EROSKETAK

- Segurtasun-distantzia errespetatu ezin den establezimenduetan, ahal dela, **sustatu** aurrez aurrekoak ez diren bitartekoak, erosketak etxera eramateko zerbitzuaren bidez.
- Erosketak linean egiteko aukeraren **berri eman** bezero zaugarrienei.

5.5. SALGAIK KOBRATU ETA EMATEA

- Salgaiak **ematean**, saihestu bezeroak ukitzea. Horretarako, jeneroa erakusmahaiaren alde batean utzi, edo tarteko erretilu batean.
- Sustatu **bitarteko elektronikoen** bidezko ordainketa. Erabili ondoren, garbitu saltokiko terminala (TPV).
- Kobratzeko orduan, erabili **eskularruak edo gelak**, eta, ezin bada, areagotu segurtasun-neurriak eta eskuak garbitzeko maiztasuna.
- Ahal bada, saihestu **dirua edo beste ordainketa-bide batzuk maneiatzen** dituen langileak elikagaiak ere saltzea. Ezin bada, erabili soluzio edo gel hidroalkoholiko desinfektatzaileak bezero bakoitzari arreta eman ondoren.

6. HIGIENE- ETA OSASUN-ARLOKO NEURRIAK

6.1. NORBERAREN HIGIENEA

6.1.1. ESKUEN HIGIENEA:

ESKUAK GARBITZEA da infekzioa prebenitu eta kontrolatzeko neurri nagusia (OME-Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioa).



Koronabirus: ESKUAK BEHAR BEZALA GARBITZEKO JARRAIBIDEAK

Coronavirus: INSTRUCCIONES PARA LAVARSE LAS MANOS ADECUADAMENTE



- **Azazkalak** labur eta zainduta eduki behar dira, eta eskuak behar bezala garbitzea zaildu dezaketen **eraztunak, eskumuturrekoak, erlojuak edo bestelako apaingarriak** saihestu behar dira.
- **Elikagai-dendetan**, Osasun Sailak ezarritako gomendio higieniko-sanitarioak jarraitu behar dira.
- Saihestu beste pertsona batzuekin **kontaktu estuan** egotea.
- Eskularruak erabiltzeak ez gaitu eskularruak garbitzetik salbuesten, eta behar besteko maiztasunaz garbituko ditugu. Eskularruak erabiliz gero, eskuak garbitzeko jarraibide orokorrak ezarri behar dira.

- Eskularruak honela kendu behar dira, irudian agertzen den bezala:



eta ez ahaztu eskularruak kendu ondoren **ESKUAK** urarekin eta xaboiarekin **GARBITZEA**.

6.1.2. ARNAS-ETIKETA:



1. Eztula eta doministiku egitean, estali sudurra eta ahoa **paperezko zapi** batekin, eta bota tapa eta pedala dauzkan zaborrontzi batera.
2. Paperezko zapirik eduki ezean, egin eztula edo doministiku **alkandoraren maukan**, eskuak ez kutsatzeko.
3. Saihestu begiak, sudurra eta ahoa ukitzea.
4. Arnas-higienarako ohitura onak eduki.

6.2. LANGILEEN JARRERA

- COVID-19arekin zerikusia izan dezakeen edozein **sintoma** edukiz gero (eztula, sukarra, arnasteko zailtasuna eta abar), ez joan lanera, eta jar zaitez harremanetan familia-medikuarekin. Berdin jokatu, COVID-19aren kasu posible, gertagarri edo baieztatu batekin harreman estua izan baduzu.
- Dendetako langileek urarekin eta xaboiarekin garbitu beharko dituzte **eskuak**, bezeroekin objekturen bat trukatzan duten bakoitzean edo ahal duten aldiro. Ura eta xaboa erabiltzea zaila bada, soluzio hidroalkoholikoak erabiliko dira.



- **Aldagelan**, lanaldia hastean, langileek arropa, oinetakoak eta abar aldatzen dituztenean, eskuak garbitu beharko dituzte, eta, eskularruak erabiltzen badituzte, beharrezkoa denean aldatuko dituzte. Lanpostuan, gel edo soluzio hidroalkoholikoak erabil daitezke, higiene egokia edukitzeko.
- Langileak **kutsatzea saihesteko**, beste pertsona batzuk ez besarkatzea, musukatzea edo eskurik ez ematea gomendatzen dugu.
- **Kontaminazio gurutzatua** murrizteko:
 - o Elikagaiak manipulatzeko diren establezimenduetan, Osasun Sailak ezarritako elikadura-higieneko betekizunak aplikatu behar dira, elikagaien artean eta langileekin kontaminazio gurutzatuak saihesteko xedez.
 - o Elikagaiak manipulatzeko, behin erabiltzeko eskularruen hornidura handitzea gomendatzen dugu.
- **Etxez etxeko banaketa** eginez gero, norberaren higiena eta jarduera onak bermatu beharko dira:
 - o Banatzaileek askotan garbitu beharko dituzte eskuak. Komeni da langileei alkohol oinarridun desinfekzio-sistema bat ematea, garbitasun hori ahalbidetze aldera.
 - o Saihestu ontziratu gabeko produktuen (batez ere, elikagaien) eta edozein kontaminazio-iturriren (adibidez, eskuen, norberaren gauzen, mugikorren edo bestelako tresnen) arteko kontaminazio gurutzatua.
 - o Langileei norbera babesteko ekipamendua emango zaie. Eskularruak eta maskarak kutsadura-iturria izan daitezke, horiek erabiltzean arnas-jariakinak eta zikinkeria pilatzen doazelako. Kontuz ibili behar da horiek erabili eta botatzeko orduan, eta behar besteko maiztasunaz aldatu beharko dira.
 - o Banaketarako erabiltzen den garraioa garbi-garbi eduki behar da, barrualdetik nahiz kanpoaldetik.
 - o Ahal bada, lineako ordainketa egin.
 - o Erosketa etxera eramatean, utzi produktua atearen aurrean, eta ez sartu etxebizitzara. Edonola ere, gomendatutako distantzia gorde.
- Ahal den neurrian, **ez erabili beste langile batzuen ekipoak eta gailuak**. Beste langile batzuen gauzak erabili behar baldin badira, ordea, areagotu neurriak, eta, ahal bada, desinfektatu erabili aurretik. Ezin bada, garbitu eskuak erabili eta berehala.
- Bezeroekin edo beste enplegatu batzuekin **gauzak** (adibidez, dirua, ordaintzeko txartelak, boligrafoak eta abar) **ez partekatzea** gomendatzen dugu. Gauzak halabeharrez trukatu behar badira, eskuak desinfektatuko dira trukea egin eta gero.



- Egunero garbitu eta aldatu **laneko arropa**.
 - o Laneko arropa garbitzeko, ahalik eta gutxien manipulatu behar da, leun bildu behar da, eta zuzenean eraman behar da garbigailura (bestela, poltsa batera sartu, garbitzeko tokira eramateko).
 - o Uniformeak egunero garbitzea gomendatzen dugu; hortaz, horien hornidura handitzea azter liteke.
- Lanerako joan-etorrietan, **banakako garraioa** erabiltzea gomendatzen dugu, Garraio Ministerioak horri buruz eman dituen gomendioak betetzeko eta distantziak ziurtatzeari begira.

6.3. GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-PROZEDURA

- Establezimenduko instalazioak eta laneko ekipoak garbitzeko eta desinfektatzeko kontrolak eta antolaketa-neurriak ezarri; hau da, establezimendua **garbitzeko eta desinfektatzeko plan bat** (G+D Plana) ezarri. Bertan, honako hauek adierazi:
 - o Garbitu + desinfektatu (G+D) behar diren gainazalak/ekipoak, honako hauek sartuz: erakusmahaiak / aldagelak, aulkiak eta zerikusia daukaten gauzak / orgak, erosketa-saskiak / igogailuak, eskailerak (botoiak, eskubandak eta barandak barne) / ateak (heldulekuak barne) / gune komunak....
 - o Erabili behar den produktua
 - o G+Dren maiztasuna
 - o G+Dren arduraduna
- Ohiko desinfektatzaileak (lixiba, alkohola edo ur oxigenatua) edo Bioziden Erregistroan inskribatuta dauden detergenteak eta desinfektatzaileak erabiltzen direla ziurtatu (https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas.pdf).
- Jarraitu horiek erabiltzeko zehaztapen teknikoak, intoxikazioak saihesteko. Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean (ROESB) inskribatutako enpresetako teknikari gaituek bakarrik erabiliko dituzte espezializatutako langileek erabiltzeko erregistratuta dauden desinfektatzaileak.
- **Areagotu** instalazioak edota erakusmahaiak, ateen heldulekuak, altzariak, lurzoruak, telefonoak, kutxa erregistratzaileak, orgak, komunak eta abar garbitu eta desinfektatzeko (G+D) **maiztasuna**, guztiak baitira puntu beroak.
- **Instalazioak** behar bezala garbitu eta desinfektatzea errazteko, **baldintza egokietan** eduki beharko dira, eta, horretarako, hondatutako zonaldeak konponduko dira, txukuntasuna mantenduko da, behar ez diren materialak eta gauzak botako dira...



- **Klimatizazioa** giro-tenperaturan (23°C-ren eta 26°C-ren artean) edukitzea eta **airea behar beste aldiz berrizatzea** gomendatzen dugu (gutxienez, egunero bost minutuz aireztatu beharko da). Aire girotuaren sistema berrikusi behar da; bereziki, iragazkiak garbitu edota aldatu beharko dira.
- Ahal den neurrian, sektoreko araurik urratzen ez bada, **ateak irekita** edukiko dira, ziriakin edo bestelako sistemekin, bezeroek heldulekuak ukitu behar izan ez ditzaten.
- **Tapa eta pedala dauzkaten zaborrontziak** jarriko dira, zapiak eta behin erabiltzeko bestelako materiala botatzeko. Askotan garbituko dira.
- Garbiketa-lanak egiteko, **erabili** binilozko edo akrilonitrilozko **eskularruak**. Latexezko eskularruak erabiliz gero, jantzi kotoizko eskularruak azpitik.
- Garbitzaileek norbera babesteko ekipamendu egokia (eskularruak, mantalak eta abar) erabiliko dituzte, egoera bakoitzaren arrisku-mailaren arabera, eta modu seguruan botako dituzte. Ondoren, eskuak garbituko dituzte.

Gauzak garbitzea:

- Gauzak desinfektatzeko, materialak hala uzten badu, erabili soluzio hidroalkoholkoa duen zapi garbi bat. Horrelakorik eduki ezean, ohiko alkohola erabil dezakezu (% 96ko kontzentrazioa), honela diluituta: nahastu 70 ml alkohol eta 30 ml ur. Ondoren, ez da zertan urez eragin.

Kutsatuta egon daitezkeen gainazalak desinfektatzeko prozedura:

- Lehenik eta behin, garbitu egin behar da; bestela, desinfekzioa ez da eraginkorra izango. Ondoren, desinfektatu gainazalak; batez ere, askotan ukitzen direnak.
- Urrats honetarako, lixiba erabiltzea gomendatzen dugu, baina jarduera biruzida duten produktu desinfektatzaileak ere erabil ditzakezu, merkatuan daudenak. Ez nahastu produktuak, zure osasunerako kaltegarria izan daiteke-eta. Jarraitu beti erabiltzeko jarraibideak.
- Desinfektatzaile gisa lixiba erabiltzen baduzu, honela diluitu behar duzu: nahastu 20 ml lixiba eta 980 ml ur (litro batera iritsiz), edo horren baliokidea. Adibidez: 10 ml lixiba eta 490 ml ur (500 ml lortuz). Nahasketa prestatu den egunean bertan erabili behar da.
- Desinfektatzaile komertzial bat erabiltzen baduzu, jarraitu etiketako argibideei.

Jendea biltzen duten tokiak garbitzea:

- Jendea biltzen duten tokiak garbitu eta desinfektatzeko, dena delako tokia garbitu eta desinfektatzeko ohiko politikari jarraituko zaio. Hala ere, higiene-neurriak areagotuko dira, eta ezarrita dagoen sisteman xedatutako gune kritikoen multzoa indartuko da.



- Toki horiek desinfektatzeko orduan langile espezializatuek bakarrik erabil ditzaketen produktu biruzidak erabiltzen badira, autonomia-erkidegoetako Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean horretarako berariaz erregistratuta dauden enpresek egin beharko dituzte tratamenduok.

7. ANTOLAKETA-NEURRIAK

7.1. ZUZENDARITZA/GERENTZIA

Zuzendaritzari edota gerentziari dagokio establezimenduan jazotzen den edozein gertakari kudeatzea, eta, besteak beste, honako kontu hauek aintzat hartu beharko ditu:

- **Bitartekoak edukitzea:** osasungintzako agintaritzak gomendatzen dituen segurtasun-neurri guztiak garatzeko behar diren bitarteko ekonomiko eta estrategiko nahikoak eduki behar dira.

Enpresak norbera babesteko ekipamenduak eman beharko ditu, arriskuak babes kolektiborako bitarteko teknikoen bidez edo lana antolatzeko neurrien edota prozeduren bidez behar beste mugatu edo saihestu ezin daitezkeenean.

- o Garbiketa-produktuen eta babes-ekipamenduen stocka hobetuko da, une oro erabilgarri egongo direla ziurtatzeko. Honako hauek osatzen dute stocka: eskuetarako gel edo soluzio desinfektatzailea, behin erabiltzeko zapiak eta eskularruak, mantalak eta zabor-poltsak. Stocka egunero berrikusiko da.
 - o **Soluzio hidroalkoholiko desinfektatzaileak** erostea, establezimenduan banatzea eta jendeari arreta emateko tokietan jartzea gomendatzen dugu, bezeroek nahiz langileek erabil ditzaten.
- **Ekintzak erregistratzea:** abiatzen diren ekintzak erregistratzeko liburu edo agenda bat eramatea gomendatzen dugu, eguna, ordua, arduradunak eta abar jaso daitezen bertan. Halaber, sor litekeen dokumentazio guztia (garbiketa-partearak, mantentze-lanen kanpo-kontrolak, zerbitzuen albaranak, laneko baja-agiriak eta abar) gordetzea gomendatzen dugu, hartutako prebentzio-neurrien trazabilitatea ziurtatzeko.
 - Langile guztiak **informatzea eta trebatzea** establezimenduak hartu dituen segurtasun-neurri higieniko-sanitarioen inguruan. «Segurtasun-protokoloarekiko adostasuna erakusteko adierazpena» betetzea, langileek protokolo hau irakurri dutela eta ados daudela egiaztatuzko (ikusi 9. atala).
 - Hala bada, laneko arrazoiengatik **joan-etorriak** egin behar dituela adierazten duen banakako **ziurtagiria** emango zaie langile guztiei, alarma-egoerari dagokionean.



- Langile bat COVID-19aren kasu baieztatua edo susmagarria (ikertua) bada, ez du lanera joan beharko, emaitzak negatiboak direla baieztatu arte edo osasungintzako agintaritzak infekzioa amaitutzat jo arte, kasuaren arabera (ikus 7. atala).
- Antzeko neurria hartuko da **langile batek COVID-19aren kasu batekin kontaktu estua** duenean.

7.2. ANTOLAKETA

- Langileen arteko kontaktua eta langileen eta bezeroen edota lantokian ager daitezkeen **pertsonen arteko kontaktua murrizteko behar diren neurriak** hartu behar dira. Zentzu horretan, lanpostuen antolaketa, pertsonen zirkulazioa eta eremuen antolaketa (altzariak, apalategiak, korridoreak eta abar) aldatu beharko dira, ahal den neurrian, segurtasun-distantzia mantentzea ziurtatzeko xedez.
- **Txandak ezartzeko**, etenaldiak egiteko, lanak txandakatzeko... aukera aztertzea, zama fisikoaren nahiz egoera honen ondoriozko zama mentalaren inpaktua murrizteko eta, aldi berean, eskuak garbitzea ahalbidetzeko.
- **Lanera sartzeko eta lanetik irteteko**, langileak txandaka mugituko dira, puntako orduetan jendepilaketak jasan ez ditzaten.
- **Fitxatzeko, ez da hatz-marka** erabiliko, eta, horren ordez, bestelako edozein sistema erabiliko da. Hala egin ezean, ordea, 70º-ko alkohol propilikoarekin desinfektatuko da fitxatzeko gailua, erabili aurretik eta ondoren, eta neurri horren berri emango zaie langileei.
- Ahal den neurrian, **bilerak ez dira** denda barruan **egingo**, eta, bilerak egitekotan, pertsonen artean segurtasun-distantzia gordetzea ahalbidetuko duen eremu zabal batean egingo dira, bezeroengandik ahalik eta urrunen, eta inoiz ez gune komunetan.
- **Saihestu** lantokiko **gune komunak**, atsedeen-guneak, *office*-a eta abar **partekatzea**. Instalazioek neurri horiek bermatzen ez badituzte, erabilera-txandak programatuko dira, beti ere segurtasun-distantziak errespetatuta.
- Lantokietan **guztiek erabiltzen dituzten gailuak kendu edo itxiko dira** (adibidez, ahoa iturrira hurbiltzea eskatzen duten ur-hornigailuak). Kafe-makinen kasuan, berriz, kentzen ez badira, dosi bakarrekoak edo antzekoak erabiltzea gomendatzen dugu.
- Salgaiak mugitzeko edo hornitzeko **karga-jasogailuetan edo igogailuetan**, gehienez ere pertsona bat egongo da, edo gehiago, 2 metroko urruntzea bermatu ahal bada. Nolanahi ere, ahalik eta gutxien erabiliko dira. Pertsona batek baino gehiagok igo behar badute eta langileen babesa ziurtatu ezin bada, arnas-babesa erabiltzea gomendatu ahal da. Prebentzio-zerbitzuaren jarraibideak jarraituz erabiliko da babesa.
- Kontraten, bezeroen eta hornitzaileen **bisitak ahalik eta gehien murriztuko dira**. Establezimenduan zerbitzu eman behar duten kontratek bertako langileen segurtasun-neurri berberak hartuko dituzte. Ahal den guztietan, ordutegi komertzialetik kanpo.



- Ahal dela, **lanpostuen antolaketa**, pertsonen zirkulazioa, eremuen banaketa (altzariak, apalategiak, korridoreak, kutxen lerroa eta abar), txanden antolaketa eta zentroko gainerako lan-baldintzak **egokiuko dira**, pertsonen artean 2 metroko segurtasun-distantzia (edo Osasun Ministerioak unean-unean eskatzen duen distantzia) gordetzen dela bermatzeko xedez.
- Lurrean, **segurtasun-lerro** bat markatuko da, edo informazio-kartelak jarriko dira, kutxen eremuan nahiz salmenta zuzeneko zonaldean, bezeroaren, produktuaren eta langileen arteko distantzia ziurtatzeko.
- **Autozerbitzuko eremuak murriztuko dira**; batez ere, ontziratu gabeko produktuetan.
- **Ontziratzekeo eremuak** argi eta garbi identifikatuko dira, fardelak modu higienikoan manipula daitezten.
- **Eskariak prestatzeko eta biltzeko** eremua mugatuko da, kontaminazio gurutzatua saihesteko.
- Establezimenduko ezaugarriek hala eskatuz gero, langile batzuk bezeroen zirkulazioa antolatzeke lanetan aritu daitezke, horiek sakabanatzeko eta pertsona-pilaketa handiko eremuak sortzea saihesteko xedez.
 - **Jendearen eskura** gel desinfektatzaileak eta eskuak lehertzeko papera jarriko dira, lokalaren sarreran beti, erabiltzeko moduan.

7.3. PRESTAKUNTZA

- **Informazioa eta prestakuntza** funtsezkoak dira, hain egoera berezian antolaketa-neurriak eta neurri higienikoak nahiz teknikoak ezarri ahal izan daitezten. Langile guztiek ezartzen diren neurri espezifikoetarako buruzko informazio eta prestakuntza espezifiko eta eguneratua dutela bermatu behar da.
- Langileen informazioak eta prestakuntzak **Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzko Legean** ezarritakoa bete behar dute.
- Ezinbestekoa da langileentzat **urteko prestakuntza-plan** bat edukitzea, non, besteak beste, higiene- eta osasun-arloko segurtasun-gaiak jasoko diren.
- Higiene- eta prebentzio-neurriak sustatuko dituzten **kartelak eta seinaleztapena** ugarituko dira. Azpimarratu beharra dago oso garrantzitsua dela informazioa eta prestakuntza egokitzen joatea, eskudun agintaritzak eguneratzen dituen neurrien arabera. Horretarako, neurrien jarraipen etengabea egin behar da.



8. GAIXOTASUNAREN, HARREMAN ESTUEN ETA LANGILEEN ZAURGARRITASUNAREN KUDEAKETA

- Covid-19aren inguruko oinarrizko ezagutzak, prebentziorako aintzat hartu beharrekoak:
 - o Honako hauek dira Covid-19aren sintomak: batez ere, eztula, sukarra eta arnasteko zailtasuna, baina baita giharretako eta buruko mina ere, kasu batzuetan.
 - o Kasuen % 80k sintoma arinak daukate, eta inkubazio-aldia 2-14 egunekoa da. Kasuen % 50 kutsapen-egunetik 5 egunetara hasten dira sintomak agertzen.
- Pertsona batek infektatuta dagoela pentsaraz dezaketen arnas-sintomak baldin baditu (eztula, sukarra eta airea falta zaiolako sentrazioa), besteengandik bereiziko da, eta, ahal dela, isolatzeko moduko toki edo esparru batera eramango da. Halaber, maskara kirurgikoa jarriko zaio. Halakorik eduki ezean, besteengandik bereiziko da.

Maskara kirurgikoa eta eskularruak emango zaizkio arreta ematen dion langileari.

Etxera joatea, beste batzuekin harremanetan ez egotea eta berehala ohiko osasun-zentrora deitzea gomendatuko zaio.

Pertsona hori etxera itzultzeko ondo ez badago, aurreikusitako tokian ipiniko da, eta osasun-zentrora deituko da (ahal dela, bere telefonotik, deia itzultzen badiote ere). Osasun-zentroak zehaztuko ditu hartu beharreko neurriak.
- Pertsona hori langile bat bada eta etxean gaixotzen bada, ez du lanera joan behar, inolaz ere ez. Halaber, bere burua isolatu beharko du, eta lehen arretako medikuak emandako gomendioak jarraituko ditu.
- Langile bat COVID-19aren kasu posible, gertagarri edo baieztatu batekin harreman estuan egon bada, ez du lanera joan behar, inola ere ez.
 - o Kontaktua lanean gertatu bada, prebentzio-zerbitzuarekin harremanetan jarriko da. Laneko medikuak txosten bat idatziko du, lehen arretako medikuari eraman diezaion. Txosten horrekin, langileak ohiko osasun-zentrora deituko du, aldi baterako ezintasuna izapidetu diezaioten.
 - o Kontaktua etxean gertatu bada, berriz, lehen arretako medikuak egingo dizkio izapideak.
- Langile bat COVID-19aren aurrean zaurgarria bada, prebentzio-zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko du, zerbitzu horrek bere osasun-egoera baloratu eta prebentzio- nahiz babes-neurri egokienak proposa ditzan. Laneko medikuak lanpostua egokitze aukera baloratuko du, eta, ezin bada, lanpostua aldatzea proposatuko du. Hori ere ezinezkoa bada, berriz, aldi baterako ezintasuna eskatzea proposatuko dio. Horrelakoetan, inguruabar guztiak azaltzeko txostena idatzi beharko du, lehen arretako medikuak proposamena balora dezan.



9. HARREMANETARAKO

Zalantzarik izanez gero, jarri gurekin harremanetan dico@euskadi.eus posta elektronikora idatzita, eta ahalik eta lasterren erantzungo dizugu.

10. ERREGISTROA

Urtebetez gorde beharko da sortutako erregistro guztia (**prestakuntza-planak, G+D Planak eta «Segurtasun-protokoloarekiko adostasuna erakusteko adierazpena»**), establezimenduak hartutako prebentzio-neurrien trazabilitatea bermatzeko xedez.

Protokolo honetan aipatzen diren erregistroez gain, bete beharreko erregistro gehigarri hau dago:

- «Segurtasun-protokoloarekiko adostasuna erakusteko adierazpena». Dokumentu hori sinatuta, langile guztiek protokolo hau irakurri eta ulertu dutela eta haien erantzukizun-zatia onartzen dutela ziurtatzen da.

11. ZERIKUSIA DAUKAN DOKUMENTAZIOA

Hona hemen protokolo hau egiteko erabili diren informazio ofizialen iturriak.

- «Prebentzio-protokolo espezifikoa, merkataritza sektorean COVID-19 birusaren ondorioak minimizatzeko» (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila)
 - o https://bideoak2.euskadi.eus/2020/03/13/news_60944/16032020_COMERCIO_Protocolo_actuacion_COVID_19.pdf
- «JT-02: Establezimenduak eta jendea biltzen duten lekuak garbitu eta desinfektatzeko neurriak» (Osasun Saila)
 - o https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/coronavirus_normativa/eu_def/adjuntos/JT-02-Establezimenduak-jendea-biltzen-duten-lekuak-garbitu-desinfektatzeko-neurriak.pdfhttps://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/coronavirus_normativa/eu_def/adjuntos/JT-02-Establezimenduak-jendea-biltzen-duten-lekuak-garbitu-desinfektatzeko-neurriak.pdf
- «(COVID-19) Koronabirus berriaren salbuespenezko neurrien araudia» (Osasun Saila)



- o <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-salbuespenezko-neurrien-araudia/web01-a2korona/eu/>
- «Sars-CoV-2 birusarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuentzako jarduketa-prozedura» (Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizaterako Ministerioa)
 - o <https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/PrevencionRRL COVID-19.pdf>
- «Dokumentu teknikoa: Covid-19a kutsatzea prebenitzeko higie-neurriak» (Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizaterako Ministerioa)
 - o https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Medidas_higienicas COVID-19.pdf
- «Lantokietako jarduera onak» (Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizaterako Ministerioa)
 - o <https://www.mscbs.gob.es/gabinetePrensa/notaPrensa/pdf/GUIA110420172227802.pdf>
- «Establezimendu fisiko eta ez-sedentarioetako merkataritza-jarduerari zuzendutako segurtasun-plana» (Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Osasun Ministerioa)
- «Normaltasun berriranzko trantsizio-plana – 2020ko apirilaren 28a» (Osasun Ministerioa) II. eranskina.- Alarma-egoeran nazio-eremuan ezarritako mugaketak altxatzeko aurreikuspen orientagarria, normaltasun berrirako trantsizio-faseen arabera
- o http://implantecoclear.org/documentos/COVID19/Anexo%20II%20FASES_FINAL.pdf



Hona hemen txikizkako jarduerari eta zerbitzuak emateko jarduerari buruzko laburpena:



Oharra.- Aurreikuspen hau orientagarria da, eta ez zehatza. Alarma-egoeran ezarritako mugaketak altxatzeko erabakiak eta data zehatzak egokitzen diren tresna juridikoen bidez zehaztuko dira. Neurri guztiei ezar dakiekeen araubidea ere egokitu ahal izango da, pandemiaren bilakaeraren edo justifikatutako inguruabarren arabera.

Jarduera guztiei ezar dakiekeen araubide komuna:

- Baimendutako jarduera guztiak garatuko dira segurtasuneko, autobabeseko eta urruntze sozialeko baldintzetan. Etxetik kanpo maskarak erabiltzea komeni da, eta oso gomendagarria da urruntze soziala bermatu ezin denean. Halaber, soluzio hidroalkoholikoak eskuragarri jarri beharko dira, eskuak maiz garbitu daitezzen.
- Baimendutako jardueren lokal eta establezimendu guztiak aldizka garbitu eta desinfektatu beharko dira, baita bertako ekipamenduak ere.
- Oro har, normaltasun berrira iritsi arte, zeina III. fasea gainditutakoan lortuko den, eta behar bezala justifikatutako arrazoirik egon ezean, ezingo gara bizi ez garen probintzietara joan. Normaltasun berriko etapan, berriz, probintzien artean bidaia ahalko dugu, III. fasea bietan gainditu bada.
- Taula honetan adierazten diren jarduera eta mugaketa guztiak ondoz ondoko deseskalatze-faseetan mantenduko dira, beste mugaketa batzuk adierazten ez badira.
- Garraioidea edozein delarik egiten diren bidaiak baimendutako jarduerak egiteko egin beharko dira.

JARDUERA-EREMUA	0 FASEA	I. FASEA	II. FASEA	III. FASEA
TXIKIZKAKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUAK EMATEKO JARDUERAK	<p>Aurretiko hitzordua ematen duten lokal eta establezimenduak irekiko dira, bezeroei banakako arreta emateko. Lokal horiek erakusmahaia eta manpara eduki beharko dituzte, eta, ezin bada, norbanakoen gehieneko babesa bermatu beharko da.</p> <p>65 urtetik gorakoei lehentasunezko arreta emateko ordutegia ezarriko da.</p> <p>Zerbitzu profesionalak bezeroa zuzenean ukitzea eskatzen badu, derrigorrezkoa izango da babes-neurriak erabiltzea (adibidez, maskarak edo eskularruak).</p>	<p>Saltoki-gunea edo merkataritza-parkea ez diren merkataritza-lokalak eta -establezimenduak irekiko dira, oro har.</p> <p>Horrek ez du asaldatzen saltoki-guneetan dauden eta alarma-egoeran irekita egon ahal izan diren establezimenduen jarduera.</p> <p>Edukiera % 30ekoa izango da. Bezeroen artean 2 metroko distantzia gordetzea bermatuko da.</p> <p>Hori ezinezkoa denean, bezero bakarra egon ahalko da.</p> <p>65 urtetik gorakoei lehentasunezko arreta emateko ordutegia ezarriko da.</p> <p>Dagokion udalak hala proposatzen duenean, aire zabaleko merkatuek/salmenta ez-sedentarioko azokek (azoka txikiek) bide publikoan hasi ahalko dute haien jarduera, postuen arteko distantziak mantenduz eta merkatu ibiltaria mugatuz, segurtasun-indarrek edukiera behar bezala kontrolatu dezaten. Hasieran, ohiko postuen % 25 egon ahalko dira, edo azalera handitu ahalko da.</p>	<p>Saltoki-guneak edo merkataritza-parkeak irekiko dira, baina ezingo da eremu komunetan edo jolas-guneetan egon.</p> <p>Edukiera % 40koa izango da. Edonola ere, bezeroen artean 2 metroko distantzia gordetzea bermatuko da.</p> <p>Distantzia hori bermatu ezin den lokaletan, bezero bakarra egon ahalko da lokalaren barruan.</p> <p>65 urtetik gorakoei lehentasunezko arreta emateko ordutegia ezarriko da.</p> <p>Salmenta ez-sedentarioan/aire zabaleko azoketan, ohiko postuen herenak jardun ahal izango dute, edo azalera handitu ahalko da, postuen artean antzeko distantzia utzita eta I. fasean adierazitako neurriak errespetatuta.</p> <p>Hezkuntza eta Zientzia ataletan sartuta ez dauden hezkuntza- eta prestakuntza-zentroak irekiko dira (autoeskolak, akademiak eta abar). Honako neurri hauek ezarriko dira:</p>	<p>Saltoki-guneetako eremu komunak eta jolas-guneak erabiltzeko debekua kenduko da. Edukiera % 50ekoa izango da. Segurtasun-distantziak 2 metrokoa izaten jarraituko du.</p> <p>Aire zabaleko azokek/salmenta ez-sedentarioko merkatuetan, ohiko postuen erdiek jardun ahalko dute, edo azalera handitu ahalko da, postuen artean antzeko distantzia uzteko moduan. Udalen esku egongo da, eta pertsonen artean 2 metroko segurtasun-distantzia bermatu beharko da.</p>



12. NEURRI ESPEZIFIKOEN ERANSKINA:

Ondoren, ESTABLEZIMENDU FISIKO ETA EZ-SEDENTARIOETAKO MERKATARITZA-JARDUERARI ZUZENDUTAKO SEGURTASUN-PLANA deiturikoan (Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Osasun Ministerioa) zehazten diren neurri espezifikoen zati bat **laburbiltzen da**. Neurri espezifiko horien bidez, protokolo honetan ezarritako neurri orokorrak osatzen dira.

12.1. NEURRI ESPEZIFIKOAK, EREMUKA

12.1.1. Salmenta-gunea

- Saltzailearen eta bezeroaren artean nahiz bezeroen artean, gutxienez 2 metroko distantzia egotea gomendatzen da, bai erosketa-prozesuari dagokionez, bai arreta emateko eta ordaintzeko eremuai dagokienez.
- Kartelen bidez, osasungintzako agintaritzak argitaratutako higiene-prozeduren berri eman behar zaie langileei nahiz bezeroei, eta laguntza eskatu. Gune sentikorrenetan, gomendio bereziak emango dira; hala nola:
 - Eskailera mekanikoak: ahal dela, ez ukitu eskubandak. Gainera, 4 edo 5 mailaz behin, marka bat jarriko da, 2 metroko segurtasun-distantzia adierazteko.
 - Igogailuak: ahal dela, ez erabili. Gehienez ere, pertsona bat igoko da, edo gehiago, baldin eta 2 metroko urruntzea bermatu ahal bada. Lehentasuna emango zaie muga fisikoak dauzkaten pertsoneri, zeinak lagunduta egon ahalko diren. Era berean, haurrentzako orgatxoak lehenetsiko dira.
 - Kutxak: segurtasun-distantziak errespetatu.
- Gehieneko edukiera ezarriko da, gutxieneko distantzia-neurriak betetzeko moduan. Edukiera lokalaren azalerarekin proportzionala izango da, eta deseskalatze-fasearekin bat egingo du. Bestetik, kartel batean adierazita egon beharko du, establezimenduaren sarreran, eta bezeroek nahiz langileek ikusteko moduan egongo da.
- Era berean, bezeroen sartu-irtenak kontrolatuko dira, elkar gurutzatu ez dezaten.
- Ahal dela, ate ezberdinak erabiliko dira bezeroak sartzeko eta irteteko, eta eskuak garbitzeko bitarteko egokiak jarriko dira.
- Merkataritza-establezimendura sartzeko edo hortik irteteko ateetan edo establezimenduko gune komunetarako ateetan, seinaleak jarriko dira, eta pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia bermatzeko gailuak ezarriko dira. Azaldutako neurri guztiak hartu arren pertsonen babesa ziurtatu ezin denean, arnas-babesa erabiltzea gomendatu ahalko da. Prebentzio-zerbitzuaren jarraibideak jarraituz erabiliko da babesa.



- Lurrean, segurtasun-lerro bat markatuko da, edo informazio-kartelak jarriko dira, kutxen eremuan nahiz salmenta zuzeneko zonaldean, bezeroaren, produktuaren eta langileen arteko distantzia ziurtatzeko.
- Ahal bada, «erosketa segururako erriak» sortuko dira, irteteko eta sartzeko ordenan jarraituko diren geziak edo seinaleztapena jarritz.
- Elikagaietarako adierazi diren gomendio espezifikokoak albo batera utzi gabe, bezeroek produktuak (bereziki, ontziratu gabeak) eta ekipoak zuzenean manipulatzeko saihestu behar da. Horri begira, bezeroei zerbitzua eman beharko zaie, autozerbitzu-sistema murrizteko.

12.1.2. Erakusgai dauden produktuak

- Bezeroentzat erakusgai dauden produktuak saltzen dituzten establezimenduek gainazalen eguneroko desinfekzioa areagotuko dute, eta bezeroek produktuak manipulatzeko mugak ezarri ahalko dituzte (adibidez, eskularruak erabiltzera behartuta, higie- eta osasun-arloko araudiak adierazten duen moduan). Halaber, beharreako balitz, erositako produktuak modu seguruan desinfektatzeko prozedura zein den adieraz dezakete, ondo ikusteko moduan.

12.1.3. Probatzeko produktuak

- Krisialdi honetan, jendearen eskuetatik kendu behar dira produktu horiek, lokaleko langileek bakarrik erabil edo manipula ditzaten.

12.1.4. Kutxak

- Ahal den neurrian, txandakako terminalak erabiliko dira, eta 2 metroko distantzia utziko da pertsonen artean.

Plastikozko manparak edo antzeko zerbaitei jartzeko aukera aztertuko da. Jartzen diren elementuek zurrinak edo erdi-zurrinak eta erraz garbitu eta desinfektatzekoak izan beharko dute. Jarri ondoren, lan-eremuak babestuta geratu beharko du, eta, txanda-aldaketetan, garbitu egingo dira.

- Ahal den neurrian, haurdunei, adinekoei, desgaituei eta abarrei emango zaie lehenik arreta.
- Mugikorraren edo txartelaren bidezko ordainketa sustatuko da. Billeteak edo txanponak erabili ondoren eta hurrengo salerosketa hasi aurretik, eskuak desinfektatu beharko dira. Saltokiko terminala (TPV) PINarekin erabiltzen bada, terminala garbituko da (baita boligrafoa ere, eragiketarako sinadura eskatzen badu).



- Kutxen ilaran, segurtasun-distantziak errespetatuko dira. Kutxetan, lehentasuna emango zaie adinekoei, mugikortasun murriztua dutenei, 3 urtetik beherako seme-alabak dauzkaten gurasoei eta haurtxoen orgatxoei.

12.1.5. Produktuak itzultzea

- Salgai jarri aurretik, desinfektatu egin beharko dira, edo berrogeialdian eduki. Bestetik, eskularruekin hartuko dira.
- Tapa eta pedala dauzkaten zaborrontziak jarriko dira, zapiak eta behin erabiltzeko bestelako materiala botatzeko. Askotan garbituko dira.

12.1.6. Janaria edo bestelakoak saltzeko makinak

- Adierazi
 - o Bezeroek 2 metroko segurtasun-distantzia gorde behar dutela ilaran.
 - o Halaber, eskuak makina erabili aurretik eta ondoren garbitu eta desinfektatzea komeni dela esan.
- Makinen garbiketa eta desinfekzioa areagotu; batez ere, erabiltzaileek zuzenean ukitzen dituzten tokietan (pantaila, botoiak, produktua hartzeko tokia eta abar).

12.2. SALTOKI-GUNEETAN DAUDEN ESTABLEZIMENDUETARAKO GOMENDIO ESPEZIFIKOAK

Saltoki-guneetako lokaletarako bereziki garrantzitsuak diren neurriak azpimarratu behar dira:

12.2.1. Higiene- eta osasun-arloko neurriak

- Saltoki-gunea goitik behera desinfektatu beharko da ireki aurretik, arreta berezia emanez eremu publikoen (aparkalekuak, atsedeen-guneak, komunak...), zama-kaietan eta hondakin-guneen garbiketari.
- Aparkalekuetan, ohiko ukipen-puntuak etengabe desinfektatzeaz eta bezeroen eskura gel hidroalkoholikoa jartzeaz gain, «contactless» bitarteko elektronikoen bidezko ordainketa sustatuko da.
- Irekita dagoen orduetan, kontaktu-eremu nagusiak (komunak, lurzoruak, eskailera mekanikoetako eskubandak, ateen heldulekuak, ongiatorria emateko erakusmahaia eta abar) aldizka garbitu eta desinfektatu beharko dira.
- Metakrilatozko manparak jarriko dira informazio- eta arreta-guneetan.



- Gel hidroalkoholikoaren banatzaileak jarriko dira zentroaren hainbat gunetan (bereziki, sarreretan, komunetan, arreta-guneetan eta igogailuetan), eta, aldizka, behar bezala dabiltzala egiaztatuko da.
- Haurren gunek, ludotekak eta unean-uneko deseskalatze-fasearen arabera baimenduta ez dagoen edozein jarduerarako eremuak itxiko dira.
- Atsedeen-gunek itxi edo mugatuko dira, segurtasun-distantzia bete dadin.
- Ukipen-pantaila interaktiboetako direktorio digitalak eta euskarriak desaktibatuko dira, eta, desaktibatuta egon arren, etengabe garbitu eta desinfektatuko dira.
- Arreta bereziz kontrolatuko da jendea komunetara eta edoskitze-geletara txandaka sartzen dela, segurtasun-distantzia berma dadin. Haur batek komunera joan behar badu, heldu batek bakarrik lagundu ahalko dio.
- Pertsona-taldeak sortzea eragin dezaketen jarduerak bertan behera geratuko dira (ekitaldiak, promozioak, kultur jarduerak...).
- Hipermerkatuen, komunen eta jende ugari biltzen duten tokien sarreran, segurtasun-distantzia markatuko da lurrean, biniloen bidez.
- Neurrien protokolo bana emango zaie saltoki-guneko establezimenduei.
- Bideozaintza-sistemak erabiliko dira, urruntze sozialeko neurriak eta osasun-neurriak betetzen direla ikusteko.

12.2.2. Saltoki-guneko bisitarien buruzko neurriak

- Pertsonak zenbatzeko sistema eta urruntze soziala kontrolatzeko neurriak (aparkalekua barne).
- Segurtasun-langileek gutxienezko distantzia errespetatzen dela kontrolatuko dute, eta saltoki-gunean dabilzan bi pertsonatik gorako taldeak sakabanatuko dituzte, arreta berezia eskainiz eskailera mekanikoei eta igogailuei.
- Segurtasun-distantzia adierazteko biniloak jarriko dira eskaileretan, igogailuetan, komunetan, ongietorria emateko erakusmahaietan...
- Nolabaiteko maiztasunez, segurtasun-gomendioak gogoraraziko dira kartelen eta megafoniaren bidez.

12.3. MERKATARITZA-SEKTORE EZBERDINETARAKO GOMENDIO ESPEZIFIKOAK

12.3.1. Elikadura

- Elikagai-produktua ontziratu gabe erakusten bazaie bezeroei, babestu egin beharko da, beira-arsen, plastikoen, kristalen, metakrilatoaren edo elikagaiaren higiena bermatuko duen edozein materialen bidez.



- Arrantza-produktuen edo fruten eta barazkien salmenta lagunduan, segurtasun-distantzia bat ezarri ahalko da bezeroen eta produktuen artean, establezimenduaren neurriaren arabera.
- Saltzaileek nahiz ontziratu gabeko produktuak manipulatzeko dituzten bezeroek eskularruak erabiliko dituzte.
- Une oro jarraituko dira elikadura-segurtasuneko arauak.

12.3.2. Ehungintza

- Aldagelak:
 - o Behar bada, aldagelak aldi batez ixteko edo zati batean irekitzeko aukera aztertu (adibidez, bat irekita eta hurrengoa itxita). Dendako langileek laguntza emango dute, segurtasun- eta higiene-neurriak bermatzeko xedez.
 - o Gehienez ere, pertsona bakarra sartu ahalko da aldagela bakoitzera, salbuespenezko egoeretan izan ezik. Erabili ondoren, garbitu egingo dira (atea, panela edo errezela barne).
 - o Aldagelara sartzeko errezela baldin badago, errezel horren ordez ate edo panel bat jartzea gomendatzen dugu, edo, bestela, errezela eskuekin ez ukitzeko eta eskularruekin edo ukondoarekin irekitzeko jarraibideak ematea.
- Arropak ukitu aurretik eta ondoren, eskuak garbitu edo desinfektatzeko aukera emango da.
- Arropa probatzeko orduan higiene-neurriak areagotzeko eskatuko zaie bezeroei. Saltzailea zalantzan badago, arropa desinfektatu egingo da, edo berrogeialdian jarri, 48 orduz. Arropa horiek hartu eta manipulatzeko orduan, behin erabiltzeko eskularruak erabiliko dira.

12.3.3. Oinetakoak

- Produktuak probatzean behin erabiltzeko galtzerdiak erabiltzea gomendatzen da (dendak banatuko ditu).
- Probatu bai baina erosi ez diren produktuak garbitu egingo dira, baita itzulitakoak ere, soluzio alkoholikoa edo antzekoa duten espraien bidez.

12.3.4. Bitxi-dendak

- Bezeroak ez du gainazalik, beira-arasarik edo katalogorik ukituko, dendak emandako eskularru berriak jantzi ezean. Halaber, ezingo ditu salgaiak ukitu: dendariak erakutsiko dizkio.
- Erakusgai guztia desinfektatuta egon beharko da, eta piezak ukitzen edo probatzen diren aldiro desinfektatuko dira.



- Salgaiak probatzen badira, proba egingo den tokia desinfektatuko da (eskuak edo dena delako gorputz-atala), gel hidroalkoholikoarekin. Bestela, behin erabiltzeko plastikozko estalki bat erabil liteke (film bat, adibidez), dena delako gorputz-atala estaliko duena (eskua, besoa, eskotea eta abar), bitxia (eraztuna, erlojua, lepokoa eta abar) non probatuko den.
- Garbiketa-produktuak ura eta xaboia izatea gomendatzen dugu, oro har. Hori ezinezkoa bada, 70º-ko alkohol propilikoa erabil liteke, paper-zapi busti batekin edo kotoizko disko batekin igurtzita. Dena dela, alkoholak kaltetu ditzakeen bitxietan (esaterako, perletan), hidrogeno peroxidoa (ur oxigenatua) erabiltzea komeni da, edo konposatu horrekin lurrun-bainua egitea. Era berean, erradiazio ultramorearekin desinfektatzea gomendatzen dugu.

12.3.5. Gasolindegia

- Ziurtatu behin erabiltzeko eskularruak erabiltzen direla eta pertsonen artean 2 metroko distantzia gordetzen dela, erregaia erosteko banagailuak txandaka erabilia.
- Erregaia banatzeko eremua garbi eta desinfektatuta eduki behar da.

12.3.6. Altzariak

- Ahal den neurrian, bezeroek banaka hartuko dituzte produktuak. Erositakoa ibilgailura sartzeko laguntza behar badute, babes egokia ipiniko da.
- Etxez etxeko banatzaileek eta dendetako muntatzaileek norbera babesteko elementu nahikoak eraman beharko dituzte (gutxienez, bi eskularru-pare eta bi maskara pertsonako), manipulazioaren batean kaltetzen badira ere. Era berean, gel desinfektatzaileak eramango dituzte, entrega bakoitza baino lehen eta ondoren igurtzeko.
- Saltzeko kontaktu fisikoa eskatzen duten altzariak (sofak, aulkiak...) babesgarriekin edo kanape-estalkiekin estaliko dira, eta proba amaitutakoan bota edo desinfektatuko dira.

12.3.7. Zeramika-, komun-, sukalde- eta birgaiteta-dendak

- Laginak aurkeztean, materialen testura probatzeko orduan, proba non egingo den esango zaio bezeroari, eta, ondoren, probatutako pieza desinfektatuko da.
- Katalogo fisikoarekin lan eginez gero, edo saltzaileak aurkeztuko du, edo behin erabiltzeko eskularru babesgarriak eskainiko zaizkio bezeroari.
- Bezeroak kontratatu duen profesionalarekin zuzeneko harremana izan dezala sustatuko da, bezeroaren mugimenduak ahalik eta gehien murriztuta koordinatu dadin obra.



- Produktuak obrara hornituko dira zuzenean, zapaldutako tokiak garbitzea eta desinfektatzea ahalbidetuko duen hornidura-prozedura baten bidez.
- Segurtasuna are handiagoa izan dadin, albaranen erakusmahaietan manparak erabiltzea komeni da, eta, ahal dela, langileak babestea.

12.3.8. Kapelen eta burukoen dendak

- Bururako osagarriak probatzen direnean, zelulosazko txapelak erabiliko dira, behin erabiltzekoak, eta proba amaitu ondoren botako dira.

12.4. SALMENTA EZ-SEDENTARIOKO MERKATUEN JARDUERARAKO SEGURTASUN-NEURRI ETA -BALDINTZAK

Udalak ezarriko ditu salmenta ez-sedentarioko jarduera garatzean Covid-19a ez kutsatzeko eta hedatzeko segurtasun-arloko arauak eta gomendioak betetzea bermatzeko neurriak.

12.4.1. Antolaketa-neurriak

Postuen edukiera eta antolaketa

- Salmenta ez-sedentarioko merkatuak ohiko tokietan egokitu ahalko dira, eta haien jarduerari eutsi ahalko diote; beti ere, unean-uneko deseskalatze-fasean baimendutako edukiera ez gainditzea eta pertsonen artean gutxieneko segurtasun-distantzia gordetzea ahalbidetzen bada. Udalak, hala badagokio, salmenta ez-sedentariora bideratutako azalera handitzea baloratu ahalko du.
- Azoka ez-sedentarioak egiteko prestatzen diren eremu estali gabeek obretako zintarekin, hesiekin edo tokiaren mugak argi eta garbi markatzea ahalbidetuko duen edozein bitartekorekin mugatuta egon beharko dute, dendarien eta tokiko agintarien arteko koordinazioaren bidez, jendearen sartu-irtenak kontrolatu eta jende-pilaketak saihestu ahal izan daitezten.
- Salmenta ez-sedentarioko azokek jarduera esparru itxi edo mugatu batean garatu ezin badute, kirol-instalazioetara edo beste instalazio mota batzuetara mugitzeko aukera aztertuko dute, edukiera kontrolatzeko neurriak hartzeko moduan.
- Funtzionamenduan dauden postuen antolaketak eta kopuruak, halaber, segurtasun-distantzia gordetzea ahalbidetu behar dute.



- Postuak elkarrengandik distantzia nahikora jartzea gomendatzen dugu: kale batean aurrez aurre dauden postuen artean, gutxienez 6 metro eta jendea igarotzeko bide bat egongo da; elkarren ondoan dauden postuen artean, berriz, 2,5 metroko distantzia ezarriko da.

Sarrerak eta informazioa

- Esparrura sartzeko sarrera bat ipiniko da, eta irteteko beste bat.
- Sarreran, hidrogel-banagailu bat edo bestelako desinfektatzaile bat jarri ahalko da bezeroentzat, erosketa-gunera sartu aurretik erabil dezaten.
- Funtzionamendu-orduetan, azokaren esparrua zainduko da, urruntze sozialeko arauak bete eta jendepilaketak saihestu daitezten.
- Dendari eta bezero guztiei emango zaie antolaketa- eta higiene-neurrien berri, argi eta garbi. Halaber, neurri horiek betetzen laguntzeko eskatuko zaie.
- Hartu beharreko urruntze- eta higiene-neurriak jasoko dituzten kartelak jarriko dira.

Garbiketa

- Eremu guztietako garbiketa-programak berrikusiko dira, kutsatuta egon daitezkeen gainazalak (ohikotasunez ukitzen direnak: heldulekuak, ateak, barandak, erakusmahaiak, iturriak eta abar) desinfektatzeko prozesua behar bezala eta ahalik eta maiztasun handienarekin egiten dela ziurtatzeko.

12.4.2. Salmenta-postuen segurtasun-neurriak

- Postuetan, saltzaileek 2 metroko gutxieneko distantzia mantendu beharko dute elkarren artean. Postuaren neurriek distantzia hori gordetzea galarazten badute, langile bakarra arituko da salmentalanetan.
- Salmenta-postuko saltzaileek bakarrik ukitu ahalko dituzte produktuak. Babes-eskularruekin egingo dute beti, Covid-19aren kontrako jarraibideak eta higiene-arloko gomendioak jarraituz.
- Saihestu elikagaiak eta dirua edo ordaintzeko bestelako bitartekoak aldi berean manipulatzeko. Txartel bidezko ordainketa sustatuko da, eta saltokiko terminala (TPV) erabili ostean garbituko da, bezeroak ukitu baldin badu batez ere.



- Salmenta-postuak maiz garbitu eta desinfektatu beharko dira. Lanaldiaren amaieran, makineria, gailuak eta postu ibiltariko elementu guztiak garbitu eta desinfektatuko dira, ukitu ahal izan diren gainazalak kontuan hartuz. Horretarako, Covid-19aren pandemiari aurre egiteko eman diren garbiketa- eta desinfekzio-jarraibideak jarraituko dira.
- Tapa eta pedala duten zaborrontziak jarriko dira, ondo ixteko moduko poltsekin, hala nola zapiak eta behin erabiltzeko bestelako materialak bota ahal izan daitezten. Zaborrontzi horiek maiz garbitu beharko dira.
- Postua txukun eduki beharko da: produktuak modu higienikoan antolatuko dira, kategorien arabera banatuta, une oro garbitasun-itxura emanaz.
- Produktuak itzultzen badira, desinfektatu egin beharko dira, edo berrogeialdian eduki, berriro salgai jarri aurretik.
- Halaber, produktu horiek behin erabiltzeko eskularruekin hartzea aholkatzen dugu.

12.4.3. Zama-ibilgailuetarako eta salmenta ibiltarirako higiene- eta segurtasun-neurri gehigarriak

- Zama-ibilgailuak askotan garbitu eta desinfektatu beharko dira, eta arreta berezia jarriko zaie gainazalei, bolanteari, heldulekuei eta abarrei. Horretarako, etxean erabiltzeko lixiba erabil liteke, uretan diluituta, agente kimikoen aurreko babes-neurriak hartuta.
- Garbiketa-lanak egiteko, erabili binilozko edo akrilonitrilozko eskularruak. Latexezko eskularruak erabiliz gero, jantzi kotoizko eskularruak azpitik.